

2012ko irailaren 12a, asteazkena

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

4101

AGINDUA, 2012ko irailaren 12koa, Osasun eta Kontsumoko sailburuarena, Euskadiko Kontsumoko Arbitraje Batzordeko lehendakaria kargutik kentzea xedatzen duena.

Osasun eta Kontsumoko sailburuaren 2010eko azaroaren 22ko Aginduaren bidez, Euskadiko Kontsumoko Arbitraje Batzordeko lehendakari izendatu zen Esteban Arlucea Ruiz jauna.

Euskadiko Kontsumoko Arbitraje Batzordea atxikitzeari eta laguntzarako administrazio-zerbitzu bat sortzeari buruzko martxoaren 8ko 120/1994 Dekretuaren Xedapen Gehigarrian eta Kontsumobideren egitura eta antolaketari buruzko uztailaren 12ko 159/2011 Dekretuaren 9.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Esteban Arlucea Ruiz jauna Euskadiko Kontsumoko Arbitraje Batzordeko lehendakari kargutik kentzea.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 12a.

Osasun eta Kontsumoko sailburua,
JAVIER RAFAEL BENGEOA RENTERÍA.